


# Mungia

GURE HERRI POLITA!



Egileak:

MOLP TEAM LH5

5.maila



Ikastolen Elkartea

# Mungia gozatu

TARTALO



## Aurkezpena

Kaixo lagunak, Tartalo deitzen naiz. Aurpegian begi bakar bat dut eta burusoila naiz. Makil bat daramat eskuan, oso indartsua naiz HulkÂ bezala. Nire herriko altxorak ezagutu nahi dituzu? Oso ondo pasatuko dugu!

Etorri Mungia niri ezagutzera!

## Presentación

Hola amigos, me llamo Tartalo. Tengo un solo ojo en la cara y soy calvo. Llevo un palo en la mano, y soy tan fuerte como Hulk. Â¿Quieres conocer los tesoros de mi pueblo? Â¡Lo pasaremos muy bien!

# Mungia begirada batean

## Kokapena

Mungia Bizkaiako herri bat da. Bilbotik 17,8 kilometrotara dago.

## Erliebe-elementuak

Ibaia, lautadak, basoa eta zuhaitzak.

## Bestelako informazioa

Mungiaren erdigunean Matxin plaza dago. Izenaduba basoa zeharkatzen baduzu Olentzeroren etxea aurkituko duzu, oso polita da!Â



# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## Torrebillera parkea



Torrebillera parkea makalak, haritzak eta astigarrak daude. Hortik Butroe ibaia igarotzen da eta parkean taberna bat dago Bordatxua deitzen da. Haurrentzako jolas leku bat dago tabernaren ondoan eta zubia igarotzen baduzu Torrebillera kultur etxea aurkituko duzu.

# ZER IKUSI (Interesgune naturalak)

## Uriguen parkea



Uriguen parkea Olentzeroren etxearen alboan dago. Mungiako jaietan Â sukalki eta tortilla txapelketa egiten da, hor jateko mahai batzuk daude. Txakurrekin paseo bat emateko leku apropos bat da.Â

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## Alkartasunaren Iturria



Alkartasunaren Iturria Mungiako Matxin plazan dago M aren ondoan. Harriz eta metalez eginda dago, alde batean biak bat eta biena jartzen du eta bi esku agertzen dira. Mungian garrantzi handia du.

# ZER IKUSI (Interesgune artistikoak)

## Olentzeroren Etxea



Olentzeroren etxea Uriguen parkearen ondoan dago. Han Olentzero, Mari Domingi, Galtzagorriak, Tartalo...bizi dira. Etxearen ondoan umeentzako jolas leku bat dago,Â etxea adreiluz eta egurrez eginda dago.

# Zirkuituaren mapa



## Legenda

Norabidea



Erreferentzia-puntua



Abiapuntua



Interesguneak



Helmuga





# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren lehen urratsa



- Abiapuntutik lehen interesgunera joateko, Aspace-Bizkaiatik Olentzeroren etxera joateko bidea.

### Deskribapena

Lehenengo, Aspace-Bizkaia atzean duzula eskumara biratu eta zebrabidea zeharkatu. Gero, Atxurizubi kaletik aurrera joan beste zebrabide bat aurkitu arte eta zebrabide hori gurutzatu. Aurrera joan azkenengo zebrabidea aurkitu arte eta zebrabide hori gurutzatu eta Olentzeroren etxera helduko zara.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren bigarren urratsa



- Lehenengo interesgunetik bigarren interesgunera joateko, Olentzeroren etxetik Uriguen parkera.

### Deskribapena

Â Olentzeroren etxea aurrean duzula eskuinera biratu eta Cam. San Martinetik aurrera joan eta ezkerrera biratzen baduzu Uriguen parkera helduko zara.Â

## Zure zirkuituaren hirugarren urratsa



- Bigarren interesgunetik hirugarren interesgunera joateko, Uriguen parketik Alkartasunaren Iturrira.

### Deskribapena

Uriguen parkea zeharkatu eta 39 C. Lauaxeta Olerkari kaletik aurrera joan eta biribilgunean aurrerantza jarraitu hurrengo biribilgunean 15 C. Lauaxeta Olerkaritik sartu eta aurrera joan QUOP gozokidenda aurkitu arte 5 Zubiaga kaletik aurrera jarraitu Telepizza aurkitzen duzunean eskuinera biratu 2 Elorduigoitia kaletik plazara heldu arte. Eta plazan M aren alboan Alkartasunaren Iturria aurkituko duzu.

# Zirkuituaren deskribapena

## Zure zirkuituaren laugarren urratsa



- Hirugarren interesgunetik laugarren interesgunera joateko, Alkartasunaren Iturritik Torrebillera parkera.

### Deskribapena

Alkartasunaren Iturritik, Andramarira joan. Andramari aurrean duzula ezkerrean biratu eta 2 Gamiz bidetik joan Saskibaloiko zelaira heldu arte. Orain, eskuinera biratu eta aurrean duzun zubia zeharkatzen baduzu Torrebillera parkera helduko zara.

## Zure zirkuituaren bostgarren urratsa



- Laugarren interesgunetik helmugara joateko (helmuga eta abiapuntua berbera da), Torrebillera parketik kiroldegira.

### Deskribapena

Torebillera parkean zaudenean ezkerrean duzu zubira joan behar zara. Zubia zeharkatu eta Ibarra Kaletik aurrerantza joan. Zebrabidera heltzen zarenean eskumara biratu eta Gamiz bidetik aurrerantza joan biribilgunerarte. Biribilgunean Arana Goiri-Tar Sabin kaletik sartu eta zebrabidea aurkitzen duzunean eskumara biratu eta kiroldegia aurkituko duzu.

# Bisitarientzako gomendioak

Zaborra dagokion zakarrontzira bota.

Energia aurreztu (ura, argia...).

Cuidar la naturaleza.

Respetar a los animales.

Use paper properly.

Combine dog poop.